

Corellarra

ESPELETIA, Uribe, Aristeguieta, Echeverria, Lardizabala, Larrea, Lastarria, Ercilla, Luzuriaga, Ochagavia eta Urmenetea izenez gain, botanikak badu beste euskaldun asko: Abasoloa, Aldama, Alzatea, Arrabidea, Azaola, Berroetea, Echeandia, Echeverria, Gardoquia, Iriarte, Iriartella, Ignatia, Lexarza, Mendoza, Mendozia, Saracha, Tafalla, Ulloa, Unanuea... Gehiago ere izan dira. Lasai, etorriko dira eta. Edo, nahi izatera, zerorrek ekarri.

Tafalla izenak historia bitxia du. Juan José Tafalla Nabasqués (1755-1811) corellarrari zor zaio. Ameriketarako egitera joanda, soldadu ari zela, garai hartako bidaldi botaniko esanguratsuenetakoa batean laguntzaile hasteko aukera baliatu zuen. *Expedición Botánica al Virreinato del Perú*, Ruiz eta Pavón botanikari ospetsuek zuzendu zuten. Handik aurrera ez zuen beste ezer egin. Baita botanikariok Madrilgo Jardín Botánicoaren erosotasunera erretiratzea erabaki zutenean ere; bere gisa jarraitu zuen. Ekuadorko eta Peruko landaredia beste edozein europarrek ez bezala ezagutu zituen. Bereziki kina espezieak (*Cinchona* sp) landu zituen. Orduko sendagai begikoetako bat zen, eta



KLOCKRIKE-CC BY SA



FOREST & KIM STARR-CC BY

Cinchona pubescens espezieko aleak. Juan José Tafalla corellarrak 43 kina espezie aurkitu zituen Hego Amerikan egindako hainbat espedizio botanikotan.

etekin samurrak antzematen zitzaizkion. Bere irakasle eta nagusi izan zenak, Ruizek, zazpi espezie aurkitu zituen; Tafallak 43.

Landare ugari aurkitu eta haien haziak, landareak, bildumetarako laginak... zer ez zuen prantatu eta Espainiara igorri. Ordu arte ezezagunak ziren makina bat landare ere bai. Ikaragarrizko pagotxa zuten Madril. Tafalla jauna oihanean, aihotza astintzen, eta beraiek, belusezko besaulki erositetan ospea puzten. Madril jarri zioten izena Ameriketako lehenengoz aurkitutako landare askori. Hango jauntxoak omentzen dituzten izenak, gehienbat: *Una-*

nea, Cavanillesia... Bere izena jarri zioten genero bati, baina aurrez beste izen bat zuen hark... Propio egin ote? Gero, Tafalla izena beste genero bati ezarri zaio, eta botanikari askok bere omenezko bigarren izena eman diote beste batzuei: *Mikania tafallana*, *Ornithidium tafalla*, *Solanum tafalla*, *Willoughbya tafallana*...

Limako Jardín Botánico eta hango unibertsitateko botanika katedra ere sortu zituen. Egindako aurkikuntzak argitaratu balitu, bere garaiko botanikari handienetakotzat genuke corellarra. ■



Asuna irabazian

ASUNA (*Urtica dioica*) irabazian dago. Osinak nitrogenuko asko duen lurra atsegin du. Gure inguruko landarea da ukiulu, korta eta etxeetan. Katuen mugarrien barruan, beti dago simaurra ez bada minda. Horrek asuna dakar. Asuna landare magiko da natura eta biodibertsitatearen ikuspegitik. Ikaragarrizko lanak egiten ditu: jaki ona da eta sendabelar osagai aparta. Guretzat eta beste landareentzat ere. Argazkiko asun sorta inaurkin edo usteltzen ari den lur pilaren aldamean, nitrogenuko erruz askatzen ari denaren ondoan, irabazi ederrean dago. Mardul asko. ■